

# 2010eko IRAILEKO ESKUALDE BILERETAN ZABALDUTAKO INFORMAZIOA

## EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK IGEei BANATZEN DIZKIEN DIRU LAGUNTZAK DIRELA-ETA

Irailaren 8ko EHAAn emango da argitara IGEentzako diru laguntzen deialdiaren agindua. Aurreko ikasturteetako deialdiekin alderatuta, badira berrikuntza batzuk; honako hauek, nagusiki:

- Laguntzak IGEek **2010eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean** egingo dituzten ekintzetarako dira soilik (*orain arteko deialdietan, ikasturte osoko ekintzetarako laguntzak banatzeko deialdia egiten zuten irailean*).
- Bi inprimaki bakarrik bete behar dira:

**I. eranskina:** eskabide orria, honako datu hauekin: eskaria egiten duen pertsonaren datuak (IGEaren lehendakaria), IGEaren erregistroaren datuak, ikastetxeko ikasleak eta IGEa bazkide den Federazioaren izena (zuei dagokizuenez, BAIKARA). Eranskin hori lehendakariak sinatu behar du, eta IGEaren zigorua ere jarri behar da (*IGEak zigilurik ez badu, ikastetxearena*).

- **II. eranskina:** IGEak **2010eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra** egingo dituen ekintzen egitaraua zehaztu behar da eranskin honetan, hiru sailetan bereizita: azpiegituretako gastuak eta ekintzak; gurasoentzako ekintzak; ikasleentzako ekintzak. ERANSKIN honetan bi sinadura jarri behar dira: IGEaren lehendakariaren sinadura eta zigorua, eta ikastetxeko Eskola Kontseiluko-OOGko idazkariarena.

**EPEA:** Eskariak aurkezteko epea 2010eko irailaren 9tik urriaren 8ra egongo da zabalik (epeaz kanpo erregistratutako eskaririk ez da onartuko).

**Dokumentazioa bizkorrago aurkezteko eta balizko gorabeherak garaiz konpondu ahal izateko, arren eskatzen dizuegu diru laguntzaren eskaria BAIKARAREN bidez egin nahi duzuen IGEei urriaren 1erako bidal diezaguzuela dokumentazio guztia behar bezala beteta.**

*Deialdiaren edukiak ezagutzeko sartu Baikararen web orrian ([www.baikara.org](http://www.baikara.org))*

### **LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA**

Onartutako diru laguntzen zerrenda EHAAn argitaratzen dutenean (azaro aldera izango dela uste dugu), argitaratze egunetik 15 eguneko epea izango dute IGEek jasotako laguntza justifikatzeko. Justifikaziorako, **III. ERANSKINA** behar bezala bete eta aurkeztu beharra dago, **jatorrizko fakturak eta ordainagiriak** atxikita. Argi zehaztu behar dira hiru ekintza motetako bakoitzari esleitutako zenbatekoak, baita gastuen zenbateko osoa ere.

Datu horiek azaro-abenduan aurkeztu beharko direla iruditzen zaigu, eta garaia iristen denean emango diegu horri buruzko informazio gehiago IGEei.

## 2. -IGEentzako GIDA

Federazioak "IGEa kudeatzeko oharrak eta gomendioak" liburuxka bat argitaratu du, Guraso Elkarteei beren eguneroko lanean laguntzeko eta informazioa emateko helburuarekin. Datozen egunetan, Gipuzkoan federatutako IGE guztiei bidaliko zaizkie argitalpen horren hainbat ale. IGEren batek ale gehiago behar baditu, jar dadila harremanetan Federazioarekin.

Bestalde, webgunean ere ([www.baikara.org](http://www.baikara.org)) kontsultatu ahal izango da dokumentua, eta baita jaitsi ere. Liburuxkari etorkizunean egingo zaizkion aldaketak eta eguneratzeak webgunean bertan argitaratuko dira.

## 3. - BAIKARA FEDERAZIOAREN BATZAR OROKORRA

Ohikoa denez, eta Federazioaren Estatutuetan adierazten denari jarraituz, azaroaren 6an izango da BAIKARA Federazioaren Ohiko Batzar Orokorra. Beasaingo Loinazpe Institutuan izango da batzarra, goizeko 10.00etan lehenengo deialdian eta 10.30ean bigarren deialdian. Honako hau da batzarrerako gai zerrenda:

1.- 2009.11.09ko Ohiko Batzar Orokorrari dagokion aktaren onarpena, hala badagokio.

2.- Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa memoria eta jardueren proiektua.

3.- 2009-2010 kontuen egoera eta 2010-2011 ikasturterako aurrekontua.

4.- Bazkideen kuota 2010-2011 ikasturtean.

5.- Bazkideetutako IGEen alta.

6.- Zuzendaritza Batzordearen berritzea.

7.- Galde-eskeak.

Zuzendaritza Batzordea berritzeko, IGEek beren elkarteko kideak proposatu ahal izango dituzte Batzorderako hautagai gisa. **Horretarako, Federaziora idatzi bat bidali beharko dute, 2010eko urriak 29 baino lehen.**

## 4. - GARRANTZIZKO GAIK 2010-2011 IKASTURTEAREN HASIERAN

### 4.1. HEZKUNTZA MARKO HIRUELEDUNA

2010-2011 ikasturtean zehar, esperientzia pilotu bat egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko 40 ikastetxetan. Honako hau izango da ikastetxe horien banaketa lurraldeen eta sareen arabera:

- Araba: 7 ikastetxe, 3 publiko eta 4 pribatu.
- Bizkaia: 25 ikastetxe, 13 publiko eta 12 pribatu.
- Gipuzkoa: 8 ikastetxe, denak pribatuak.

Gogoan izan behar dugu gaur egungo hizkuntza ereduen sistema (A-B-D) aldatzea eta horren ordez hiru hizkuntzako sistema ezartzea dela marko hirueledun berri horren helburu nagusia. Sistema berri horretan, bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, eta atzerriko hizkuntza bat (ingelesa) erabiliko dira irakaskuntzarako hizkuntza gisa, gutxieneko eskola orduekin. Esperientzia pilotu horri ekingo dioten ikastetxeek hiru hizkuntza horietako bakoitzean irakatsi beharko dute ordutegiaren %20, gutxienez (%20 euskaraz-%20 gaztelaniaz eta %20 ingelesez). Esperientzia hori Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 1. mailan gauzatuko da, eta hiru ikasturteko iraupena izango du. Hiru ikasturte horietan lortutako emaitzak lau ebaluazioren bitartez neurtuko dira; ebaluazio horiek PISA frogaren nazioarteko parametroen arabera neurtuko dira, eta ISEI-IVEIk egingo ditu. Ebaluazio horien bitartez, alde batetik, hiru hizkuntza horietan lortutako hizkuntza gaitasuna

neurtuko da, eta alderdi gramatikalei baino gehiago barneratutako ezagutzen erabilerari erreparatuko zaio (esate baterako, testu bat ulertzea, edota ikasleek zer maila duten Matematikaren eta Zientzien alorrean). Lehenengo ebaluazioa azaroaren hasieran egingo da, ikasleen abiapuntua neurtu ahal izateko, eta hurrengoak urtez urte ikasturte amaieran egingo dira, 2013. urteko maiatza bitartean; azken ebaluazio horrek emango dizkigu behin-betiko ondorioak.

Hezkuntza Sailak datozen hilabeteetan deialdi berri bat zabaltzeko asmoa du, ikastetxe gehiagok izan dezaten marko hirueledun berri hori probatzeko aukera. Deialdi horretara aurkezteko, ikastetxeek nahitaez eduki beharko dute klaustroaren, eskola kontseiluaren eta esperimuntuan parte hartuko duten ikasleen familien oniritzia.

Bestalde, jakinarazi nahi dizuegu ingeles hizkuntzan murgiltzeko astebeteko barnetegien proiektuarekin aurrera jarraituko duela Hezkuntza Sailak 2010-2011 ikasturtean zehar, eta aurtengo ikasturtean Lehen Hezkuntzako 6. ikasturteko 3.261 ikaslek izango dutela aukera hori.

#### **4.2. BIZIKIDETASUN DEMOKRATIKORAKO ETA INDARKERIA DESLIGITIMATZEKO PLANA.**

Ekainaren 8an, eztabaida eta liskar ugariaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak "Bizikidetasunaren Demokratikorako eta Indarkeria Desligitimatzeko (2010-2011) Plana, Bakearen Aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren Birformulazioa (2008-2011)" onartu zuen. Plan horrek Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailetan du eragina, eta baita beste hainbat erakunde ofizialetan ere, hala nola Diputazioetan eta Eudelen.

Hezkuntzaren alorrari dagokionez, honako hauek dira Plan horretan biltzen diren ekimen nagusiak:

- Curriculumaren aldaketa Herritartasunerako Hezkuntzaren alorrean. Zer eduki landu behar diren zehazten bada ere, autonomia ematen zaie ikastetxeei eta bertako profesionalei eduki horiek nola landu behar diren eta horietan zenbateraino sakondu behar den definitzeko garaian, haiek ezagutzen baitute ondoen beren testuinguruaren errealitatea. Curriculum berria 2010-2011 ikasturtean jarriko da indarrean. Bestalde, tutoretza ere balioak helarazteko eta, zehazki, bizikidetzaren demokratikorako hezkuntza lantzeko espazio egokia dela adierazten da.
- EAEko Bizikidetzaren Behatokiarekin loturiko ekimenak eta bizikidetzaren planak eta ikastetxeen behatokiak: EAEko Behatokiaren eraginkortasuna erraztea, eta ikastetxeetan bizikidetzarako planak egiteko deialdiaren amaieran. Plan horiek abian jartzeko gehieneko epea bi ikasturtekoa izango dela zehazten da.
- Prestakuntzaren alorreko ekimenak: Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunerako mintegia, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 12-15 ikastetxek osatua. Mintegi horretan, gaitasun horren garapena eta gehitu beharreko edukiak landuko dira. Garatu ikastaroak irakasleentzat.
- Material didaktikoak osatzea: biktimen lekukotzak lantzen dituzten "Historias que nos marcan" eta "Bakerako urratsak" materialak eguneratzea eta ikastetxeen eskura jartzea.
- Bizikidetzaren demokratikoa sustatzeko baliabide unitate bat sortzea eta kudeatzea.
- UEPI proiektua: gizarte-komunitaterako proiektua, bereziki herritartasunari loturiko balioak lantzen dituenak, eta eskolaz kanpoko komunitateko eragile guztien parte-hartzea bultzatzen duena; lau ikastetxek parte hartzen dute.
- IGEentzako ekimenak: IGEen prestakuntza jardueretarako diru laguntzek lehentasuna emango diete bizikidetzaren demokratikorako hezkuntzaren alorrean diharduten jardueri eta berreraikitzeke eta baketzeko prozesuetan biktimak aintzat hartzeko premiari.

Plan hori Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaian aplikatzeari dagokionez, aipatu beharra dago ikasgai hori Lehen Hezkuntzako 3. zikloaren ikasturte batean (5.-6.) eta DBHko lehenengo hiru ikasturteetako batean emango dela. Indarkeriaren biktimak ikasgeletan bertan egon daitezke, edo aurretik grabatutako ikus-entzunezko materialen bitartez agertuko dira ikasleen aurrean. Ikastetxeek erabakiko dute zer sistema hautatu. Eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoak hautatuko ditu biktimak.

#### **4.3. ESKOLA 2.0.**

2010-2011 ikasturte honetan aurrera jarraituko du Eskola 2.0 proiektuak; era horretara, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei ordenagailu pertsonalak emango zaizkie eta arbela digitalak jarriko dira maila horretako ikasgeletan. Gogoan eduki behar dugu aurreko ikasturtean Lehen Hezkuntzako 5. mailan jarri zela proiektua abian, baina Aste Santuaren ondoren abiatu zenez, aplikazio erreala eskasa izan zen, eta ondorioz, eragin txikia izan zuen iazko ikasturteko programazioetan. Baina aurreko ikasturtean ez bezala –irakasleen prestakuntza Berritzeguneetan egin baitzen–, ikasturte honetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) espezializatuak diren irakasleen esku egongo da irakasleen prestakuntza.

Ikastetxe gutxi batzuetan eztabaidan jarraitzen dute haririk gabeko WIFI teknologiaren ordeztasun bidezko teknologia erabiltzeko egokitasunari buruz; hala ere, Hezkuntza Sailak ikastetxe horiei jakinarazi die "*Eskola 2.0 hornidura osatzen duten osagaietako baten instalazioa baztertuz gero, ikastetxeak hornidura osoari uko egingo egiten diola ulertuko da*". Horrek esan nahi du ikastetxe batek WiFi sistema baztertzen badu (instalazioa osatzen duten osagaietako bat) eta ikasgeletan hari bidezko konexioak jarri nahi baditu, ukatu edo kendu egingo zaizkiola ordenagailuak. Ikastetxeei ez zaie instalazioa hautatzeko aukerarik ematen.

#### **4.4. HAUTESKUNDEAK ETA OOG-ESKOLA KONTSEILUAK BERRITZEA.**

Eskola Kontseiluaren agintaldia lau urtekoa bada ere, bi urtez behin Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erdia (OOG) berritu beharra dago. Aurreko berritzea 2008-2009 ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan egin zen; beraz, 2010-2011 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan egin beharko lirateke eskola kontseiluak berritzeko hauteskundeak.

Aurreko berrikuntzari dagokionez, urriaren 13ko EHAAn argitaratu zen hura arautzen zuen agindua; pentsatzekoa da, beraz, datozen egunetan argitaratuko dela aurtengo ikasturteari dagokion agindua. Data zehatzik ezagutzen ez badugu ere, gogora ekarriko dugu zein den hauteskundeak egiteko eta OOG-Eskola Kontseilua berritzeko prozesua:

- Agindua EHAAn argitaratzea.
- Hauteskunde Batzarra osatzea.
- Hautagaiak onartzea.
- Hautagaien zerrendak argitaratzea.
- Zerrendei erreklamazioak egiteko epea.
- Hauteskunde ekitaldiak (2008-2009 ikasturtean azaroak 17 eta 21 bitartean izan ziren).
- Emaizak argitaratzea.
- Emaizei erreklamazioak egiteko epea.
- OOG-Eskola Kontseilu berria eratzea (2008-2009 ikasturtean abenduak 9 eta 12 bitartean izan ziren).

#### **4.5. IKASLEEN ESTADISTIKAK 2010-2011 ikasturtean**

Hezkuntza Sailak argitaratu ditu dagoeneko 2010-2011 ikasturteko matrikulazioari dagozkion datu orokorrak.

Unibertsitateaz kanpoko euskal irakaskuntzan 341.073 ikaslek eman dute izena, hau da, %2,1eko igoera izan da aurreko ikasturtearekin alderatuz gero. Hezkuntza sareei dagokienez, %50,3 sare publikoari dagokio eta %49,7 sare pribatu-itunpekoari. Datu hori oso kontuan hartzekoa da, izan ere, lehen aldia da sare publikoan sare pribatu-itunpekoan baino ikasle gehiago daudela.

Hezkuntza mailei dagokienez, honako hau da ikasleen banaketa, hezkuntza-sareen arabera:

- Haur Hezkuntza (3-5 urte): Publikoa (%51,1) – Pribatua-itunpekoa (%48,9)
- Lehen Hezkuntza (6 – 11 urte): Publikoa (%50,2) – Pribatua-itunpekoa (%49,8)
- DBH (12-15 urte): Publikoa (%45,8) – Pribatua-itunpekoa (%54,20)
- Batxilergoa eta LH: Publikoa (%55,1) – Pribatua-itunpekoa (%44,9)

Hizkuntza-ereduen arabera, honako hau da banaketa:

- Orokorra: D eredia (%58,8) – B eredia (%22,3) – A eredia (%18,9)
- Haur-Lehen Hezkuntza: D eredia (67%) – B eredia (25,9%) – A eredia (6,6%)
- DBH: D eredia (%55,9) – B eredia (%28,3) – A eredia (%15,8)
- Batxilergoa-LH: D eredia (%39,1) – B eredia (%1,5) – A eredia (%59,4)

3 urteko ikasleen artean, ereduen banaketa honako hau da:

- D eredia: %72,10
- B eredia: %23,02
- A eredia: %4,8

## **GIPUZKOAKO DATUAK**

- Haur Hezkuntza: Publikoa (%52,06) – Pribatua-itunpekoa (%47,90)
- Lehen Hezkuntza: Publikoa (%49,44) – Pribatua-itunpekoa (%50,55)

Matrikularen bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzan:

- 2005/2006 ikasturtea: Publikoa (%49,18) – Pribatua-itunpekoa (%50,82)
- 2010/2011 ikasturtea: Publikoa (%50,62) – Pribatua-itunpekoa (%49,38)
- 

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH): Publikoa (%46,82) – Pribatua (%53,16)

Matrikularen bilakaera DBHn (2010-2011):

- 2005/2006 ikasturtea: Publikoa (%42,90) – Pribatua-itunpekoa (%57,10)
- 2010/2011 ikasturtea: Publikoa (%46,84) – Pribatua-itunpekoa (%53,16)

Batxilergoa (2020-2011): Publikoa (%53,77) – Pribatua (%46,23)

Matrikularen bilakaera Batxilergoan:

- 2005/2006 ikasturtea: Publikoa (%54,24) – Pribatua-itunpekoa (%45,76)
- 2010/2011 ikasturtea: Publikoa (%53,77) – Pribatua-itunpekoa (%46,23)

Banaketa ereduen arabera:

- Haur-Lehen Hezkuntza: D eredia (%81,33) – B eredia (%16,27)  
A eredia (%2,4)

- DBH: D eredia (%70,84) – B eredia (%28,34%) – A eredia (%3,80)
- BATXILERGOA: D eredia (%68,44) – B eredia (%3,32) – A eredia (%28,24)

#### **4.6. BAIKARA FEDERAZIOAREN ESKAINTZA PRESTAKUNTZAREN ALORREAN**

Aste honetan, BAIKARA Federazioak 2010-2011 ikasturterako eskaintzen duen Prestakuntza Eskaintzaren berri bidali die IGEei eta ikastetxeei. Eskaintza hori lau atal hauetan egituratu da:

- Eskola Kontseiluetako kide diren gurasoentzako prestakuntza.
- "IGEen Kudeaketa" prestakuntza, IGEetako Zuzendaritza Batzordeetako kide diren gurasoentzat. Ikasturte honetan, berrikuntza gisa, "Komunikazio-estrategiak IGEentzat" eskainiko dugu.
- Gurasoen Eskolak eta Tailerrak: gurasoentzat. 2010-2011 ikasturterako, ikastaroen eskaintzari bi berrikuntza erantsi zaizkio: "Familiaren garrantzia nerabezaroan" eta "Gizarte-harremanak haurtzaroan/nerabezaroan".
- Ikasleentzat: Kulturartekotasun proiektua. Horren barruan, honako programa hauek landu daitezke: "Jolasten ezagutzen gara"; "Jolasten hartzen ditugu erabakiak"; "Jolasten aurre egiten diegu erronkei"; "Jolasean elkar onartzen dugu" Bestalde, "Jolasten musikaz gozatzen dugu" programa eskaintzen dugu ikasleentzat.

#### **4.7. ESKOLA JANGELAK**

Iazko ikasturtean izan ziren greba egunak gorabehera, ikasturtearen amaieran ez zen oraindik akordiorik lortu eskoletako jangeletan diharduten langileen arazoa konpontzeko. Ekainean eten egin ziren negoziazioak, eta guk dakigula ez dira berriro ere horiek abian jarri; beraz, pentsatzekoa da ikasturte honetan ere errepikatu egingo direla greba egunak.

Gauza bakarra da segurua, eskola jangelako menuaren kostuak nabarmen egin duela gora, eta ohiko erabiltzailearen prezioa 3,60 €-koa izatetik 4,00 €-koa izatera igaro dela. Igoera, hortaz, 40 zentimokoa izan da, hau da, ehunekotan adierazita, %11koa.

Ildo horretatik, EAEko hiru lurraldeetako IGEen Federazioek argi adierazi diogu Hezkuntza Sailari ez gatzela bat iguera horrekin, ez baititu ikasturte hasierako akordioak errespetatzen. Akordio haietan 20/25 zentimoko iguera onartu genuen, baina argi utzi genuen, halaber, diru sarreraren iguera hori zertarako erabili behar zen, alegia, jangeletako langileek familien arretari, prestakuntzari eta koordinaziori eskaini behar zizkioten ordu kopuruaren iguera (16 ordu gutxi gorabehera) finantzatzeko erabili behar zela adierazi genuen.

Irailaren 15ean, bilera bat izan genuen Lakuan, gai honi buruz. Bileran esandakoaren arabera, menuaren kostuaren igoyerari eutsiko zaio, eta jangelako langileen arduraldia 16 ordutik 18 ordura luzatuko da, jangela zerbitzuan hainbat hobekuntza egitearren; zehazki, ikastetxearekiko koordinazioa, familien arreta, etab. hobetearren. 18 orduko arduraldiaren zehaztapena ikastetxe bakoitzean zeregin hori dagokion guneak egingo du.

#### **4.8 . HEZKUNTZAKO ORDEZKARI BERRIA GIPUZKOAN**

Abuztuaren 17ko EHAAn argitaratu zen abuztuaren 31tik aurrera kargutik kenduko zela Hezkuntza Saileko Gipuzkoako ordezkari José Torres Casanueva. Erretiroa izan da ordezkaria kargutik kentzeko arrazoia. Oraindik ordezkari berria nor izango den modu ofizialean azaldu ez bada ere, kargu horretan JULEN BENGOTXEAK jardungo duela jakinarazten dizuegu. Julen Bengoetxea Gipuzkoako ordezkarietzako hezkuntza ikuskatzaile gisa dihardu gaur egun.